



# lezamabizirik

HERRI ALDIZKARIA +++ MAIATZAK 2018

## UDAL EKONOMIA KASKARRA, UDAL GOBERNUAREN ERANTZUNKIZUNA

Lezamako Udalaren ekonomia egoera estuan dagoela ez da sekretua inorentzat jadanik. Orain urte batzuk horretaz informatu genuenean udaleko gobernutik zorrotz kritikatu gintuzten, katastrofistak omen ginelako. Baina orain alkateak berak hile batzuk daramatza kantineka berbera errepikatzen...udalak ez dauka dirurik!. Zer dela eta orain hain ozen onartzen dute lehen ukatzen zutena?.

Ñabardura bati erreparatu behar diogu jarrera aldaketa hau ulertzeko: orain udala diruz eskas dabilela onartzen dute vaina, bide batez, horren errudunak udal gobernutik kanpo daudela diote. Hau da, Lezamako udala 40 urte bakar bakarrik gobernatzen daramatzen alderdi berak, kanpoan bilatzen ditu "bere" udalaren egoera ekonomiko larriaren "errudunak". Hau da hau!.

Berriro diogu, berrogei urtetan zehar udaleko gai ekonomikoak aldebakarrez, beste inori partehartze minimorik utzi barik, kudeatu dituztenek orain udaleko oposizioari edota, are

larriago, Lezama Bizirik Elkarteari leporatu nahi diote udal kontuen eskasiaren errua. Herri honetarako beraiek dakarten "progresoa" gelditzen omen baitugu. Eta gure elkartearen kontra behin eta berriro errepikatzen duten akusazio lotsagarri horrek, orain arte eman ez dugun erantzuna merezi duela pentsatu dugu.

Hain zuzen ere arlo askotan eta ikuspuntu askotatik antzeman daitezke EAJ-PNVren udal gobernuak gai ekonomikoetan izan dituen hanka sartze ugari eta nabariak...



## HIRIGINTZA ARLOETAKO KUDEAKETA (2007KO ARAU SUBSIDIARIO ANULATUAK, 2015KO HAPO ANULATUA...)

A tzerago joan barik, EAJ-PNV-ek 2006an Bilbo Metropoliko Lurralde Plan Partzialarekin -LPT edo PTP- bat egin zuenetik kudeaketa arazoak handitu egin dira Lezamako udalean. Plan hori aplikatzeko duen egoskorkeriak ekarri du AASS aurretik, eta HAPO ondoren, anulatzea. Urte luze hauetan, eta aurretik ere, EAJ-PNV-ek gehiengo absolutua izan du Lezamako Udal Gobernuan eta porrot guztien erantzule bakarra bera baino ez da.

Interes orokorra baino beste interes zehatz batzuk bilatzeak, eta neurri batean gure ustez inkompetentziak ere, ezintasuna ekarri dute eta horren oinarri-oinarrian dagoena da indarrean dagoen legedia, kasu horietan indarrean dauden lege urbanistikoak, ez errespetatzeko seta.

Oraintxe bertan ere HAPOren anulazioarekin irtenbidea justu eta partekatua bilatu beharrean Madrilgo Epaitegi Gorenean jarri dute helegitea anulazio sententziaren kontra. Horrek esan nahi du errekursoaren tramitea onartu arte beste urte bete bat pasa daitekeela, eta beste 2 edo 3 urte gehiago epaiketa egin eta sententzia jakin arte. Bitartean diru-kontadoreak martxan darrai, udalaren eta lezamar guztien dirua xahutzen berriro.

Edozein administrazioak badaki zein altuak diren hirigintza plan edota arauen tramitazioaren kostu ekonomikoak: enpresa erredaktorearen kontratua, aholkularitza urbanistiko zein legala...eta, gure kasuan bezala, epaitegira ailegatzen badira, balizko koste juridikoak. Lezamako kasuan bi aldiz egin dira protokolo guztiak hamar urtetan. Ehundaka mila euroko gastuak, zalantza barik,... baina EAJ-PNVren udal taldearen arabera 13.000 € baino ez. Ezjakintasuna ala inkompetentzia?.

Arau Subsidiario eta HAPOarekin

gertatutakoaz gain beste zenbait ekimen eta hitzarmen ezlegalak eraman dira aurrera eta, horrela, Udala izugarrizko konpromiso ekonomikoetan sartu da. Adibidez, 2013an gasolindegia handia egiteko alkatesak, udaleko idazkariaren legalitatearen informearren kontra, sinatu zuen hitzarmen urbanistiko ezlegala. Dagoeneko promotoreak 90.000 euro gastatu omen ditu horretan, eta, azkenean, ezin badu garatu oso posible da udalaren kontra jotzea eta konpentsazio ekonomiko handia eskatzea.

## ARLO LEGAL ETA JURIDIKOETAN KUDEAKETA

H irigintza kudeaketa okerra eramateaz gain, arazo legal-juridikoen aurrean udal gobernuak erabili eta erabiltzen dituen irizpideek benetan harritzen gaituzte. Lehen aipatutako hirigintza tramiteetan zein herriko enpresa edota auzokideekin izandako leia juridikoetan, udala askotan atera da galtzaile eta, beti, arrazoirik ez izanda ere, helegiteak aurkeztu ditu azken instantziara arte, gastuak biderkatzen. Ohiko prozedura horrek izugarrizko sama ekonomikoa suposatzen eta suposatzen ari da udal ekonomiarako.

Horrela, Sachs eta beste Kurutzeko poligonoko enprekin miloi bat euro baino gehiago galdu ditu udalak azken 10 urtetan. Pentsa ezazue zer nolako hipoteka suposatzen duen horrelako galera hiru milioi euroko aurrekontua duen udal batentzat. Txupetxa PLAN Berezia famatuarekin ere, erredakzioa eta tramite asko egin ziren, baita txosten urbanistiko zein juridikoak ere, justifikaezina zena justifikatzeko. Promozio pribatua zen hura baina Udalak bere kontuetatik ordaindu zituen gastuak, dozenaka mila euro joan ziren zakar ontzira orduan ere. Eta afera hori antza ez da amaitu... HAPO honetako tramitazioan udala prest agertzen da, egun batean Txupetxa garatzen bada, URAk inposatutako baldintzak -udaletxearen atzeko kalea altxatu eta urbanizatu Asua ibai azalarazteko- eragingo dituen inguruko gastuak bere gain



hartzeko. HAPOk 300.000 euroko aurrekontua aurreikusten du baina askoz garestiago aterako litzateke balizko obra hori.

Kurutze poligonotik atera barik enteratu berri gara beste afera juridiko batean, lur-zoru kutsatuen azterketako gastuak direla eta, udalak beste ehun bat mila euro zor duela sententziaren arabera. Ziur asko, azkenean gastuak ez dira hor geldituko, Udalak egin ohi duen legez, helegitea aurkeztuko duelako ...

Eta zer esan Udalak agintzen dituen hainbeste eta hainbeste txosten urbanistiko, juridiko eta abarrekoie buruz, aurretik hartutako ezlegezko erabakiei nolabaiteko estaldura legala emateko...hor aipatutako gasolindegikoa, edo orain gutxi baserriak zatitzeko agindutako txostenak, lehengo txosten txapuzeroak bakarrik 20.000 euro suposatzen zuen...

Miloi bat handik, 300.000 hortik, eta hemendik 90.000, 20.000 edo beste 100.000. Dena lezamarron poltsikoetatik isurbidera zitzu bizian, urte gutxitan. Eta, zoritxarrez, mota honetako jarduerak aldatzeko inolako trazarik ez da inondik ere antzematen... Guztiz kontrakoa, erantzunkizunak asumitu eta txarto egindakoa aldatzeko ahalegindu beharrean, errezagoa da kanpoan bilatzea errudunak.

**Akusatzen gaituzte inolako arrazoi barik. Prestakuntza, apaltasuna eta zintotasun gehiago beharko genituzke lezamarrok gure Udalaren kudeaketa hobetzeko. Orain gauza batzutarako udal-kutxan dirurik ez badago lehenengo begiratu behar dena da zer den beste gauzatan alperrik gastatu dena. Hortik hasiko lirateke kudeatzaile onak kudeaketa hobetzeko. Eta ez kanpora botatzen norberak daukan erantzunkizuna.**



## EL "PEQUEÑO AYUNTAMIENTO ESPAÑOL" DE LEZAMA, RECURRE LA SENTENCIA DEL PGOU.

**E**l Ayuntamiento de Lezama ha presentado el recurso de casación ante el Tribunal Supremo de la sentencia anulatoria del PGOU. Lo ha presentado el 16 de abril, el último día posible. Tres días antes, el 13 de de abril, el alcalde había convocado Pleno municipal para poder presentar en nombre del Ayuntamiento el recurso, aunque sólo él y su concejales del PNV lo quieren. Una y otra, y otra más. Y después otra vez, otra más.

Otra vez los que mandan en el PNV en Lezama (dudamos mucho que sean sus bases) utiliza la imagen y los recursos del Ayuntamiento para volver al camino a ninguna parte. Un desastre a nivel social y económico, e incluso a nivel de convivencia, pero parece que no les importa. Pagamos a escote sus excesos. Ni siquiera la Diputación, administración que dió la aprobación definitiva al PGOU, le acompaña en este viaje y ha renunciado a presentar recurso.

No nos coge de sorpresa pero supone una nueva decepción. Los gestos y las palabras bonitas del alcalde se vuelven a quedar en puro postureo. Dijo que negociaría y presenta el recurso, justo lo contrario.

Han presentado recurso de casación sólo estatal, no autonómico, cuando tres de los cuatro motivos de anulación corresponden a la legislación autonómica. ¿Le importa a la alcaldía y "su equipo" tener pocas probabilidades de que el recurso prospere y que éste vuelva a suponer un nuevo

palo a las arcas municipales? ¿Les importa que, incluso en el caso de que sea admitido a trámite, el recurso vaya a consumir quizás tres o hasta cuatro años?. ¿Cree el alcalde que presentar el recurso es compatible con poner encima de la mesa posibles consensos alrededor de actuaciones urbanísticas concretas a corto plazo?.

El texto del recurso presentado, otras diez páginas de antología jurídica escritas por el "letrado asesor" suponemos con el visto bueno del señor alcalde y su equipo, dice cosas bien curiosas. Este letrado, aunque en los casos que ha llevado al Ayuntamiento ha contado los litigios por derrotas, se permite escribir que los jueces del TSJPV que han anulado el PGOU, además de haber cometido "errores manifiestos", han incurrido en "arbitrariedad" y han realizado sus valoraciones "de forma ilógica o concluyendo en resultados inverosímiles".

Y, entre otras cosas, justifica la grave irregularidad en el PGOU de no presentar en plazo el Plan de Participación, porque Lezama como "la mayoría de pequeños Ayuntamientos de España" no disponen de medios técnicos propios para hacerlo. Vaya, vaya, Lezama un "pequeño ayuntamiento de España"... y en las mismas vísperas del M-6!.


Pero a pesar de este recurso, o precisamente por haberlo presentado, el Ayuntamiento sabe que no podrá llevar adelante ninguna otra actuación urbanística aislada al margen del PGOU de

forma unilateral. La suerte que correría sería la misma que la del famoso PPlan Txupetxa, que en su día se quiso "rescatar" de las Normas Subsidiarias también anuladas. Eso lo tenemos bien presente, y sabemos que ellos también. Por supuesto de producirse ese supuesto de actuación unilateral obraríamos en consecuencia ante los tribunales.

Lezama Bizirik siempre va a colaborar porque haya acuerdos entre los grupos municipales y que estos acuerdos se abran a asociaciones y vecinas y vecinos. Pero decisiones como la de volver a presentar el recurso dificulta mucho esa posibilidad, además de volver a dilapidar dinero público.

Y eso nos parece muy grave.

Si el alcalde y su gobierno quieren trabajar sinceramente por ir solucionando cosas desde el consenso deberían reflexionar y plantearse retirar ese recurso cuanto antes. Y, de una vez por todas, negociar.



# EKAINAK 9, ZAPATUA. LEZAMA BIZIRIK EGUNA.

## VISITA CON LURGAIA Y COMIDA.

**C**ustodia del territorio y de la biodiversidad, política forestal sostenible, actuación contra especies invasoras,... Te gustaría saber algo más sobre todo esto?. Desearías conocer qué se está haciendo en estos temas?.

En Bizkaia Lurgaia, Fundación para la conservación y gestión del patrimonio natural, está siendo pionera en estas tareas y han cumplido ya década y media en la aplicación práctica de ellas sobre el territorio. Después de que hemos colaborado con su campaña de crowdfunding "Nuestros bosques, nuestro futuro", Lezama Bizirik ha hablado con esta Fundación y hemos acordado una visita para que nos den a conocer lo que están haciendo sobre el terreno.

**SERÁ EL PRÓXIMO 9 DE JUNIO, SÁBADO, VISITAREMOS LO QUE ESTÁN HACIENDO EN URDAIBAI, PARTIENDO DESDE EL BARRIO DE IBARRURI DE MUXIKA. ADEMÁS APROVECHAREMOS PARA CELEBRAR NUESTRO LEZAMA BIZIRIK EGUNA EN ESE MISMO E INMEJORABLE ESCENARIO.**

**ASÍ QUE LA VISITA LA HAREMOS POR LA MAÑANA Y DESPUÉS HEMOS QUEDADO PARA IR A BERMEO. ALLÍ UNA VUELTA POR EL CASCO ANTIGUO Y A COMER AL ANTZOKI, ¿QUIÉN DA MÁS?.**

**APÚNTATE CUANTO ANTES, PARA FIJAR EL GRUPO DE VISITA Y LXS ASISTENTES A LA COMIDA.**

**O**ihanak, basoak eta hezeguneak hondatzen eta urak, lurak eta airea poluitzen jarraitzen dugu gaur egun planeta osoan. Hala ere, gizartea pixkana-pixkana jabetu da gure espeziearen biziraupena gainerako espezieen eta haien ingurunearen kontserbazioaren mende dagoela. Garapenak, tokikoak zein globalak, jasangarria izan behar du, eta ingurunea eta ingurune horrek barne hartzen duen biodibertsitatea errespetatu behar ditu. Saiakuntza asko (konferentziak, legeak, hitzarmenak eta abar) egiten ari dira nazioartean, gizateria garapen-helburu horietara bideratzeko, datozen belaunaldiak utziko dizkiegun natura-ondarea eta -baliabideak agortu gabe betiere.

**Gure lurraldean ere, ekosistemen gainbeherarekin eta hortik eratorritako biodibertsitate-galerarekin lotuta daude ingurumen-arazoak. Hori dela eta, Lurgaia Fundazioaren ekimenak hiru programatan biltzen dira. Lehenengo biek ekosistema mehatxatuenetan eragitea dute xede: Quercus programak, baso autoktonoetan, eta Aqua programak, hezeguneetan. Eta hirugarrenak, Biodibertsitatea programak, animalia- eta landare-espezieen galera geldiaraztea du xede.**

